


ALEGIAKO

ORRIE



2021EKO IRAILA • ARGITARATZAILEA: ALEGIAKO UDALA • DISEINUA ETA INPRIMAKETA: GARAIKO



4/5 «HERRIKO KIROL TALDEAK, LANERAKO PREST»

2

ASTINDU
BAT KULTUR
ESKAINTZARI

3

XIV. ARTISAU ETA
NEKAZAL AZOKA
26AN

URRIAREN 1EAN
ODOLA EMATEKO
AUKERA

6

TXINTXARRIAK
MARTXAN,
BUELTAN

7

BOLUNTARIOTZA
ADIBIDE GEHIAGO

KZ GUNEKO
IKASTAROAK

8

ESTIMULAZIO
KOGNITIBO TAILERRA

MENDI ASANBLADA
HEZITZAILE BILA

Astindu bat kultur eskaintzari

Inaxio Begiristainen jaiotzaren mendeurrena eta Intxurre elkartearen 50. urteurrena izango dira 2022ko eskaintzaren ardatzetako batzuk

Urte eta erdi luze joan da 2020ko martxoan bizitza eta bizimodua aldarazi zizkigun osasun krisialdiak jo gintuenetik. Hasierako debeku eta beldurrek, ondorengo hilabeteetako zalantza eta ezjakintasun egoerari eman zieten bide eta egoera horrek modu nabarmenean kolpatu du sektore kulturala, beste hainbaten artean. Edukiera murriztak, ordutegi mugatuak... Askok izan dira sektore osoa ezegonkortu duten baldintzak eta ekimenen sustatzaileek izan dituzten zalantza eta muga horiek guztiek, kulturaren baitan lanean diharduten profesionaleri eragin diete.

Alegiako Udalak 2021ean zehar, egoerak ahalbidetu duen neurrian, eskaintza kulturala berreskuratzeko ahalegina egin du. Horren lekuko da ekainean eta uztailean egin zen udako programazioa. Bada, 2022. urteari begira jarrita, kultura lehen lerroa ekarri nahi da, urte osorako egitarau erakargarri eta anitz bat osatuz.

2022a berezia izango da Alegian. Inaxio Begiristain jaio zela 100 urte beteko dira. Alegia eta kultura lotzen dituen izen garrantzitsua da Begiristainena. Antzerki obrak idazteaz gain, antzerki taldearen sorkuntzan lan ugari egindakoa. Horrekin batera, Intxurre elkarteak 50 urte beteko ditu aurten eta horren inguruan hainbat ekimen egiteko lanean hasia da elkarte bera.



Hori guztia kontuan izanda, Udalak Kultura batzordea berrabiarazteko erabakia ere hartu du. Irailaren 13an egin zen lehen bilera eta bertan udazkenerako egitarau kulturalaren ingurukoak landu ziren, 2022ko eskaintzari begira jarri aurretik. Udazkeneko eskaintzaren berri laster emango du Udalak, bere ohiko kanalen bidez.

Udalak izan ditu lehen harremanak herriko eragileekin, 2022ko eskaintza osatzeko bidean elkarlanak sustatzeko helburuarekin. Eragile horiei epe bat eman zaie euren kabuz edo elkarlanean antolatu ditzaketen ekintzak lantzeko eta horiek guztiak

jasoko dituen egitarau integral bat osatzea da helburua.

Aurrez aipaturiko bi efemeride horien ingurukoak izango dira egitarauan gorri markatuta joango diren ekitaldi nagusiak. Horien bueltan, Udalaren helburua urtarokako egitarau eustea da eta eragileek prestatzen dituztenak txertatzea. Urtean zehar ekitaldi ezberdinak gehitzen joatea da asmoa. Egitarau hori osatzeko ekarpenak edo proposamenak izan ditzaketen herritarrei, egingo diren bilera irekietan parte hartzeko deia egiten zaie.

XIV. Artisau eta Nekazal Azoka 26an

11:00etatik 14:00etara produktu eskaintza zabala ikusteko zein erosteko aukera izango da segurtasun neurri guztiekin

Udaren amaiera udazkenaren hasierarekin lotzen duen ekitaldia izaten da Alegian Artisau eta Nekazal Azoka. Aurtengoa jada hamalagarrena izango da eta iazko ekitaldia pandemiaren eraginez bertan behera geratu zela kontuan izanda, jada herriko ekitaldien egitarauan ondo iltzatuta dagoen hitzordua dela esan daiteke.

Irailaren 26an, igandea, egingo da aurtengo ekitaldia. 11:00etatik 14:00etara produktu ezberdinez osaturiko erakustoki ugari egongo dira ikusgai eta noski, bertaratzen direnek erakusgai dauden produktu horiek erosteko aukera ere izango dute.

Denetarik izango da: barazkiak, fruituak, esnekiak, ogia, artisau produktu ugari... Alegiako eta Alegiarekin lotura edo harremanen bat duten ekoizleak izango dira.

Azoka segurtasun neurri guztiekin egingo da eta bertaratzeko asmoa dutenei antolakuntzak ezarritako neurriak errespetatzeko eskatzen zaie.



Urriaren 1ean odola emateko aukera

Kultur etxean izango da hitzordua eta elkartetik odola ematera joateko deia egiten da, beharra dagoelako

Gipuzkoako odol emaileen elkartearen eskutik, urriaren 1ean odola emateko aukera izango da Alegiako kultur etxean. Urtean zehar hainbat bisita egiten ditu elkarte horrek Alegiara eta badira hitzordurik galtzen ez duten herritarrak. Oraingo honetan ordea, odola eman nahi dutenek egunean bertan goizez hitzordua hartu beharko dute 943 31 70 91 telefonora deituta.

Elkartetik deia luzatu dute odol beharra dagoela iragarritz. Pandemia garaian jaitsi egin da emandako odol kopurua baina beharrak hortxe jarraitzen du. Beraz, orain arte eman ez duten herritarrak odola ematera animatu nahi dira eta horrekin batera, hitzordu horretara joan ezin dutenei, beste edozein egunean odol emaileen elkarteak Donostian duen egoitzan odola emateko aukera badela gogorarazten zaie.





Herriko kirol lanerako pre



Kirol mundua ere astindu du pandemiak. 2020ko martxoan etenda geratu ziren Alegiako kirol talde ezberdinen lehiaketak eta 2020-2021 denboraldian apenas izan dute lehiatzeko aukerarik. Bada, 2021-2022ari begira ilusioz dira guztiak. Intxurreko futbolariak eta pilotariak jada ekin diote denboraldi berriari eta Elorri Aldapa saskibalo taldeko kideek laster izango dute lehiatzen hasteko aukera.

Intxurre futbol taldeko jokalariek urte eta erdi egon dira lehiatu gabe. Iragan asteburuan hasi zuten denboraldia emakumezkoen gorengo eta gizonezkoen jubenil mailerako taldeek eta pixkanaka, gainontzeko taldeak datozen asteetan hasiko dira lehiatzen. Guztira 6 talde izango dituzte aurten lehiatzen, gizonezkoen 4 eta emakumezkoen 2. Gizonezkoenak erregional, jubenil, kadete eta infantil mailerako ariko dira eta emakumezkoenak gorengo eta infantil mailerako. Horrez

gain, futbol eskolaren baitan, alebin eta benjamin mailerako 60 bat gaztetxorekin ariko dira lanean.

Intxurreko pilotarientzat ere ezohikoa izan zen iragan denboraldia. Lehiaketa ofizialez kanpo taldeak berak antolatzen dituen hainbat ekimen ere bertan behera utzi behar izan zituzten. Alegiako jaien inguruan antolatzen den txapelketa, gabonetako pilota txapelketa... Horren ordez, aurtengo udan argia ikusten lagundu dien ekimen arrakastatsu bat antolatzeko moduan izan dira. Ekainean eta uztailean Alegiako eta Ikaztegiako 18 gaztetxok hartu zuten parte Gorka Altunak gidatu zuen udako pilota eskolan.

Ekimen horren arrakasta ikusita, Intxurreko pilota eskolarekin aurrera jarraitzeko erabakia hartu du eta ikasturte honetan, astelehen arratsaldetan 5 eta 12 urte bitarteko haurrek eta gaztetxoek pilotan ikasteko eta aritzeko aukera izango dute.

El taldeak, est

Intxurreko pilotariak eta futbolariak jada lanean dira eta Elorri Aldapako saskibaloijokalariek laster hasiko dira lehiatzen



mezkoenak eta zazpi eskuz binaka ari diren gizonezkoenak.

Saskibaloian, Elorri Aldapa taldeak ere indarberrituta hasiko du 2021-2022 denboraldia. Pozik daude taldeko ordezkariak pandemia lehertu bitartean taldeak izandako harrerarekin. Herrian saskibaloirako zaletasuna sortzea lortu dute eta etxean jokaturako partidetan Elorri pilotalekua bete egiten zen. 2019-2020 denboraldian egindako lana egonkortzea zen 2020-2021erako helburua baina pandemiak errotik moztu zuen hori. Dena den, ilusioz daude sasoi berrirako.

Oraingoz nagusien mailako gizonezkoen taldea soilik dute lehian. Hirugarren mailan ariko dira eta urriaren erdi inguruan ekingo diote lehiari, 14 jokalariz eta 3 teknikariz osaturiko taldearekin. 18 jardunaldiz osaturiko ligaxka jokatzen hasiko dira

Horrekin batera, emakumezko nagusien zein jubenil eta kadete mailetako taldeak berreraikitzea da Elorri Aldaparen erronka nagusia, pandemiak erdiz-erdi moztu zuelako garrantzia. Bada, interesatuta leudekeen emakumezkoen asteartertan 19:00etan Elorri pilotalekura hurbiltzeko deia egiten zaie, edo bestela, taldeko arduradunen batekin harremanetan jartzea.

Aldi berean, saskibaloira hurbildu nahi duten gaztetxoentzat ere atek irekiak ditu taldeak. 2006an eta 2007an jaiotako kadeteek eta 2004an eta 2005ean jaiotako juniorrek asteartero 19:00etan dute hitzordua, Elorri pilotalekuan.



Lehiaketa ofizialari dagokionean, Gipuzkoako binakako txapelketa izango da denboraldiko lehen erronka.

Orotara 11 dira parte hartzen ari diren Intxurreko bikoteak. Horietatik lau gomazko paletan ari diren emaku-

6

Berriz ere martxan!!



Izena emateko epea urriaren 6an itxiko da eta egun horretan adinekoei zuzenduriko hitzaldi bat eskainiko da

Pandemiak eragindako etenaren ostean, bueltan dira Txintxarriak Martxan ekimenaren ibilaldiak. Udalak, osasun zentroak eta beste hainbat eragilek sustaturiko ekimena 2020ko martxoan geratu zen etenda osasun krisialdiaren ondorioz eta iragan ikasturte osoan geldirik izan da. Bada, alde guztiek hala adostuta, adineko pertsonak ariketa fisikoa egitera bultzatzea eta beraien arteko harremanak sustatzea helburutzat dituen proiektuak urriaren 14an emango dio hasiera denboraldi berriari.

Ohiko moduan, ostegunetan 10:30ean izango dira irteerak plazatik abiatuta. Adin eta egoera bakoitzari zuzenduriko ibilbideak egingo dira eta bolondresen laguntza ere izango dute parte hartzaileek. Bizi dugun egoera kontuan izanda, parte hartzaileak taldeetan banatuko dira eta horrela egingo dituzte ibilaldiak.

Izena emateko epea zabalik dago jada eta interesatuek urriaren 6a izango dute horretarako azken eguna. Osasun zentroan, Udaleko gizarte zerbitzuen bulegoan edota elizan eman daiteke izena. Bolondres modura aritu nahi dutenek ere epe horretan eman beharko dute izena. Udaletik eskerrak eman nahi zaizkie ekimena gauzatu ahal izateko esku bat bota duten eta botako duten guztiei. Informazio gehiagorako 943 65 47 68 telefono zenbakira deitu daiteke.

Motorrak berotzeko, hitzaldia

Ibilaldiekin hasi aurretik, adineko pertsonari eta beraien laguntzaileei zuzenduriko hitzaldi bat eskainiko da

BUELTAN GARA!!



Urriaren 14an ekingo diegu 2021-2022 ikasturteko ibilaldiei!!

Ostegunero 10:30ean plazan duzue hitzordua.

Izena emateko azken eguna: urriaren 6a.

- Osasun Etxean**
- Udaleko Gizarte Zerbitzuetan**
- Elizan**

Bolondres lana egin nahi dutenek ere bertan eman dezakete izena.

Motorrak berotzeko...

Urriaren 6an adinekoei eta zaintzaileei zuzenduriko hitzaldi bat eskainiko da 10:30ean zinean, "Elikadura osasuntsua" izenburupean. Hitzaldian COVID-19aren inguruko zaintza aholkuak emango dira.

Adinekoei bertaratzeko deia egiten zaie. Musukoaren erabilera derrigorrezkoa izango da.

urriaren 6an, osteguna, 10:30ean zinean. "Elikadura osasuntsua" izango da hitzaldiaren izenburua eta bertan COVID-19ari aurre egiteko aholkuak ere emango dira.

Ekimenaren bultzatzaileek adinekoei eta laguntzaileei hitzaldian parte hartzeko deia egiten diete eta gogorarazten da, musukoaren erabilera derrigorrezkoa izango dela.



Boluntariotza adibide gehiago

Atzerritik etorritakoentzako hizkuntza klaseak ematen dituztenen eta elikagai bankua kudeatzen duten herritarren kasuak dira

Adinekoekin ostegunetan ibilaldiak egitea ez da Alegian bolondresgintzaren adibide bakarra. Badi-ra urte batzuk atzerritik etorritako pertsonentzat hizkuntza klaseak ematen hasi zirela. Hemen erabiltzen diren hizkuntzetan komunikatu ahal izateko oinarriko ezagutza eskaintzen zaie klase horietan parte hartzen dutenei. Formakuntzak jasotzeko, lan munduan sartzeko edo autonomia irabazteko baliagarri suertatzen zaien jarduna da eta 2021-2022 ikasturteari begira ere irakasle lanetan diharduten bolondresen baiezkoa jaso du Udalak, zerbitzu hori eskaintzen jarraitzeko.

Horrekin batera, Elikagai Bankuaren funtzionamenduaz arduratzen den bolondres taldea ere bada Alegian. Beharrea dauden herritarrei gutxieneko elikadura bermatzen dion sare horretako kide dira eta beraiek arduratzen dira Udal langileek elkartearen biltegitik ekarritako elikagaiak kudeatzeaz eta banaketak antolatzeaz. Hainbat urte darama bolondres talde honek lan horretan eta azken urteetan are eta ezinbestekoa goa izan da beraien jarduna, gizarteko arrakalak gero eta sako-ngoak bihurtu diren honetan.



KZ Gunearen urrutiko ikastaroen eskaintza

Hainbat asteko iraupena izango duten zazpi ikastaro eskainiko dira urrian zehar tresna ezberdinak erabiltzen ikasteko

KZ Guneak 2021-2022 ikasturtean ere urrutiko formazio eskaintzarekin jarraituko du. Urrian hasi eta azaro hasierara bitartean iraupen ezberdineko zazpi ikastaro eskainiko dira. Posta elektronikoa, Google aplikazioak, Libre Office, sare sozialak, Android sistema eragilea, Wikiloc eta Wordpress tresnak erabiltzen ikasteko balioko dute ikastaro horiek eta hauxe da eskaintza.

Ikastaroa	Hasiera eguna	Amaiera eguna	Ordu kopurua
Sortu zure email marketin kanpainak.	2021-10-04	2021-10-20	20
Erabili profesionalki Google aplikazioak.	2021-10-04	2021-11-03	40
Ofimatika aurreratu. Libre Office.	2021-10-04	2021-11-03	40
Sare sozialak. Facebook, Twitter eta YouTube.	2021-10-04	2021-11-03	40
Android sistema eragilea.	2021-10-04	2021-11-03	40
Wikiloc. Sortu eta partekatu zure kanpoko ekintzen ibilbideak.	2021-10-18	2021-11-03	20
Wordpress. Zure webgunea sortu.	2021-10-18	2021-11-03	20

Ikastaroari eta izena emateari buruzko informazio gehiago KZ Gunearen webgunean izango duzue eskura.

8

Estimulazio Kognitibo tailerra

Adinekoek eskura izango dute zerbitzu hau urriaren amaiera aldera eta izena emateko 943 65 47 68 telefonora deitu behar da urriaren 15a baino lehen

Alegiako Udalak adinekoei zuzenduriko Estimulazio Kognitibo tailerra eskainiko du urriaren 18tik aurrera. Mendekotasun arriskuan dauden adinekoei autonomiari eusten laguntzeko eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzeko laguntzeko da.

Norbanakoaren egoera psikofisikoa mantentzea eta hobetzea da tailerraren helburuetako bat bere gaitasunak mantenduz eta horrekin batera, egoera psikofisiko hori norbanakoaren benetako beharretara egokitzea. Ekintzak modu aktiboan burutzeko estimulazioa eta autoestimulazioa sustatzea eta norbanako laguntzarako gaitasuna garatzea ere helburuen artean daude, beti ere bakoitzaren aukerak kontuan izanez. Azkenik, mendekotasun egoera ekiditea edo atzeratzea ere badu helburu.

Saioak astelehenetan eta asteazkenetan izango dira 16:00etatik 18:00etara Jubilatuen elkarteetan. Izena eman nahi dutenek urriaren 15era bitartean eman ahal izango dute 943 65 47 68 telefonora deituta. Ikastaroaren hasiera urriaren 18rako dago aurreikusita.



Mendi Asanblada hezitzaile bila

Interesatuak irailaren 26ra bitartean bidali ahal izango dituzte kurrikulumak emailaz asanbladara

Alegiako Mendi Asanbladak Gizarte Abentura Ekimena jarri nahi du abian 12 eta 18 urte bitarteko nerabeen artean. Mattin Gizarte Abentura elkartearekin elkarlanean, gazteek eurek nahi dituzten planak diseinatzea eta gauzatzea da egitasmoaren helburua.

Langintza horretarako hezitzaile bat kontratatu nahi du mendi asanbladak. Astean 2 orduko lan jardunaldia eskaintzen da, normalean asteburuan gauzatuko dena. Gazteekin harremanetan jartzea, bilerak eta dinamikak planifikatzea, gazteei eurek nahi dituzten jarduerak diseinatzen laguntzea eta jardueretan parte hartzea dira lanpostuaren egitekoak.

Eskakizunen inguruan, begirale titulua izatea eta 18 urtetik gorakoa izatea eskatzen da. Alegiakoa izatea eta Gizarte Hezkuntza agiria izatea baloratuko da. Interesatuak irailaren 26ra bitartean bidali ditzakete kurrikulumak alegiakomendiasanblada@gmail.com helbidera.